


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,6 igo dira 2021eko urrian aurreko hilaren aldean

Urte arteko terminoetan, kostuak % 5,0 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,6 igo da 2021eko urrian, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko urria, 2020ko urriaren aldean), kostuak % 5,0 hazi dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 0,5 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 1,2. 2020ko urriaren aldean, prezioak % 4,5 igo dira Etxegintzaren kasuan eta % 7,1 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2021eko irailaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 0,8 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kostuak % 6,0 egin du gora, eta eskulanarenak, berriz, % 1,9.

Etxegintzaren sektoreak % 0,6ko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilean, berriz, igoera % 1,6koa izan da. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 5,3 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 8,8.

Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021eko Urria

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	110,5	0,6	5,0
Eraikinak	110,4	0,5	4,5
Obra zibila	111,3	1,2	7,1
LEHENGAI	110,6	0,8	6,0
Eraikinak	110,4	0,6	5,3
Obra zibila	111,6	1,6	8,8
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezio guztiek igoerak izan dituzte 2021eko urrian, 2020ko urriaren aldean. Nabarmentzekoak dira *Petrolio* (51,4%), *Metalurgia* (25,8%) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (20,2%) sektoreetakoak. Prezioetan igoera txikiena izan dutenen artean daude *Kautxua eta plastikoa* (1,5eko igoera), *Makineriaren fabrikazioa* (2,3%) eta *Mineral ez-metalikoak* (2,6%).

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko Urria

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	2,6
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	7,8
10 - Petrolio	51,4
11 - Industria kimikoa	13,2
13 - Kautxua eta plastikoa	1,5
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	4,3
15 - Metalurgia	25,8
16 - Metalezko artikulak	4,0
17 - Material elektronikoa	9,9
18 - Material elektrikoa	2,7
19 - Makineriaren fabrikazioa	2,3
22 - Altzarigintza	2,9
24 - Energia elektrikoa eta gasa	20,2

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62